

EUSKARA PROBA A2

ULERMENA

1. **ariketa:** Shahid Muhammad pakistandarrari elkarrizketa egin diote. Hemen dituzu galderak eta erantzunak. Zuk lotu behar dituzu. Lotu zenbakiak eta letrak.

SHAHID MUHAMMAD: «EUSKAL HERRIAN BIZI NAHI DUT»

Shahid Muhammad (Pakistan, 1988) Punjab eskualdekoa da. Bere herrialdean Batxilergoa ikasi zuen eta ondoren Ingalaterrara joan zen enpresa-ikasketak egitera. Iaz Euskal Herrira etorri zen. 16 hilabete daramatza Legazpin. DBHko hirugarren maila egiten ari da eta baita euskara ikasten ere.

- A) Alemanian bizi den lagun pakistandar batek gomendatuta. Hemengo bizimodua oso ona dela eta jendea oso jatorra dela esan zidan.
- B) Bai. Dena den, Euskal Herrian jendeak Ingalaterran baino hobeki hartu nau. Han, etorkinak ez gara batzuen gustuko.
- C) Beharbada horregatik, ingeles askok ez gaituzte gustuko. Lana kentzen diegula diote.
- D) Denbora libre gutxi dut. Goizetan liburutegira joaten naiz, egunkariak eta liburuak irakurtzera. Nobela historikoa atsegin dut. Interneten nabigatzea ere gustatzen zait. 15:00etatik 21:00etara, berriz, eskolak hartzen ditut. Ondoren, etxeko lanak egiten ditut. Beste pakistandar batzuekin bizi naiz.
- E) DBH bukatu nahi dut eta euskara ikasi. Egia esan, hizkuntzak oso gustuko ditut. DBH eta euskara ikasketak oso garrantzitsuak dira niretzat. Etorkizun oparo bat nahi badut, titulu horiek behar ditut. Hemen bizi nahi badut, euskara ikasi behar dut.
- F) Egoera ekonomikoa oso txarra da, baina etorkizunean enpresa batean lan egitea gustatuko litzaidake.
- G) Ez. Han gauzak ez daude batere ondo. Hemen bizi nahi dut.

- H) Ez. Lau urte daramatzat dagoeneko European, baina oraindik ez dut Pakistanera itzultzeko aukerarik izan. Gurasoen eta anaia-arreben hutsunea nabaritzen dut.
- I) Gurasoak Pakistanen bizi dira. Haiek ahal duten diru guztia bidaltzen didate eta Aldundiaren laguntza ere jasotzen dut.
- J) Hala da. Dena den, gutxi batzuk ezagutzen ditut. Bertako jendearen artean ere lagunak egin ditut.
- K) Oso pozik nago. DBH eta euskara ikasten duen pakistandar bakarra naiz. DBH Helduen Hezkuntzan (HHE) ikasten ari naiz eta euskara, berriz, udal euskaltegian.

Galderak:

1. Zer moduz Legazpin?
2. Zergatik etorri zinen Londresetik Legazpira?
3. Zure gurasoak non bizi dira?
4. Zer asmo dituzu?
5. Zer egingo duzu ikasketak bukatu ondoren?
6. Ez al duzu Pakistanera itzultzeko asmorik?
7. Gurasoak bisitatzeko aukerarik izan al duzu?
8. Europako bizimodua gustatzen al zaizu ?
9. Ingalaterran pakistandar asko bizi dira, ordea.
10. Euskal Herrian pakistandar gutxi zaudete.
11. Zer egiten duzu aisialdian, denbora librean?

Erantzunak:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
K	A	I	E	F	G	H	B	C	J	D

2. ariketa: Artikulu bat irakurriko duzu. Irakurri testua eta aukeratu egia ala gezurra. Idatzi erantzunak taulan.

Uxoa Bertiz: Inoren laguntzarik gabe iritsi naiz orain nagoen lekura

Gaztetatik futboleko jokatzeko zuen abileziagatik, eta beka bati esker, orain dela hiru urtetik dabil Springfieldekoko (Missouri, AEB) Drury unibertsitatean ikasten eta jokatzen Uxoa Bertiz futbolaria (Elizondo, Nafarroa, 1997). Txikitatik, futbol jokalaria izan nahi zuen Bertizek, futbola pasioa baita beretzat.

Bere kirol ibilbidea Irungo (Gipuzkoa) Mariñon hasi zuen Bertizek, eta, ondoren, Realera joan. Euskal Selektzioarekin ere jokatzen zituen partidak Elizondoko aurrelariak. Halere, Bertizek AEBetako futbola zuen buruan. "Estatu Batuetako futbolarik asko erakarri izan nau".

Bertizek dio, batxilergoa egiten ari zenean, futboleko jokatzeko eta ikasketak egitea geroz eta zailagoa zela beretzat. Garai hartan, bazekien AEBetako futboleko dinamika ezberdina zela. Unibertsitateko Liga izaten da han, hau da, zuk unibertsitateko taldea ordezkatzeko duzu, eta eskolako eta futboleko ordutegiak eraman ahal dituzu.

Bertizek, orduan, bere jokaldiekin eta golekin bideo bat egin zuen eta bidali zuen AEBetako hainbat unibertsitatetara. "Unibertsitateek beren futboleko programa eta beka eskaini zizkidaten. Nik Drury unibertsitateak egin zidan eskaintza hartu nuen, hori baitzen bizimodu berrira egokitzeko leku hobetua". Bertizek pozik hitz egin du orain dela hiru urte hartu zuen erabakiaz. "Azken finean, bizi kalitate hobea izateko eta futboleko maila on batean jokatzen jarraitzeko, niretzat hau izan da aukerarik hobetua, eta ez nuen bitan pentsatu". NCAA ligan jokatzen dabil Bertiz, eta ondo ari dela dio.

Ingeniaritza informatikoa ikasten ari da nafarra, eta, orain, hasierako urduritasunak alde batera utzita, ondo ari da. "Unibertsitate pribatua denez, irakaslearekin duzun harremana hurbila da, eta horrek asko laguntzen du". Halere, denbora askorik ez daukatela dio Bertizek. Izan ere, goizeko bostetan jaikitzen da entrenatzera joateko, eta, ondoren, 09:00etatik 15:00etara klaseak izaten ditu. Arratsaldean, berriz, gimnasioan ordu bateko saioa izaten dute. Goiz jaikitzea asko kostatu zitzaioala aitortu du. Horregatik, 22:00etarako lotara joaten da, kirolari batentzat atsedena oso garrantzitsua izaten dela dio.

Bizimodua asko aldatu zaiola esan du Druryko futbol jokalaria. Halere, errutina finko bat izatea asko gustatzen zaiola esan digu.

	E	G
1- Uxoak gazte-gaztetatik ari da futbolean, oso ongi.	X	
2- Uxoaren ametsa Euskal Selektzioarekin jokatzeko da.		X
3- AEBetan Euskal Herrian baino errazagoa da ikastea eta futbolean jokatzeko aldi berean.	X	
4- Drury unibertsitateak bideo baten bidez ezagutu zuen Uxoak Bertiz.	X	
5- Uxoak Drury unibertsitateko eskaintza hartu zuen gehiegi pentsatu gabe.	X	
6- Uxoari zaila egiten zaio unibertsitateko martxa jarraitzea.		X
7- Uxoak oso goiz altxatzen da, baina ez da berandu oheratzen.	X	
8- Uxoari ez zaio AEBetako bizimodua gustatzen, egunero berdina delako.		X

IDAZMENA

1. ariketa. Mezua. 50 hitz gutxienez.

Gaur ez zara lanera joanen. Lankideari mezu elektronikoko bat idatziko diozu.

Hauetako egin behar dituzu:

- Agurtu lankidea
- Kontatu: Zergatik ez zara joanen lanera?
 Noiz itzuliko zara lanera?
 Zer egin behar du lankideak bitartean?
- Eskerrak eman eta agurtu.

2. ariketa. Mezua. 100 hitz gutxienez.

Beste hiri batera joan zara lanera eta han bizi zara.

Idatzi mezu bat eta kontatu lagunari:

- Agurtu
- Kontatu:
 Zer moduz hiri berrian?
 Non bizi zara? Norekin?
 Nolakoa da zure lana? Lantokia, ordutegia, lankideak, nagusia...
 Zer egiten duzu lanetik aparte?
 Gustatzen zaizu hiri horretan bizitzea? Zergatik?
- Gonbidatu laguna zure etxera joatera.
- Agurtu.

AHOZKOA

1. ariketa: Zeure burua aurkeztu.

- Izen-abizenak/ Adina...
- Nongotarra / Bizilekua: herria, auzoa...
- Lanbidea, lantokia
- ...

2. ariketa: Urtaroei buruz hitz egin

Udaberria, uda, udazkena eta negua

- Zein urtaro gustatzen zaizu gehien eta zein gutxien? Zergatik?
- Zer bizimodu egiten duzu udan? Eta neguan?
- Nola igarotzen zenuen uda txikitana? Non? Zer egiten zenuen?
- Nolakoak gogoratzen dituzu txikitako neguak? Zer zenuen gustukuen?
- Zein izan da zure azken oporraldia? Kontatu zer egin zenuen, noiz, norekin, zergatik...
- Nolakoak dira zuretzat opor idealak? Zergatik?
- Denbora librean, zer egiten zenuen lehen eta zer egiten duzu orain?